

B

BARREN

TOKIKOM



Tira bertsoari herrira

30 min
+10 te
+10 gia

6. JARDUNALDIA

IMH, Elgoibar

2011/11/17

8:45-16:30

Inskripzioa (beharrezkoa):

www.imh.es - imh@imh.es

Telefonoa 943 74 41 32

IMH, Azkue Auzoa 1 - Elgoibar

30+10 mintegia hizkuntza-kudeaketa enpresan

Antolatzailea

Makina Erremintaren
Institutua



Kolaboratzaileak

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Elgoibarko Udala
Ahize-AEK

8 hitzaldi + 2 mahai inguru + KEKAKO (networking)
... aukera itzazu zureak!

HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUORDETZA
GIPIZKOAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
ELGOIBARKO UDALA
Mintegiaren sarrera

ANBOTO GROUP, Xabier Uribe-Etxebarria

THINK TANK, Responsabilitat Global, Josep
Maria Canyelles

GIPIZKOAKO TXINERA INSTITUTUA,
Miren Gabilondo

EMUN Enpresen sareko hizkuntzak, MU-
Enpresagintzako irizpide proposamena

ELEKA INGENIARITZA LINGUISTIKOA,
Idazlagun

MAHAI INGURUA "Hizkuntza kudeaketa eta

enpresa ekintzaileak", Parte hartzaileak:

•Jon Pelli Uriguen Berrikuntza Diputabua.

•Nuria Lopez de Gereñu CONFEBASK

•Miren Gabilondo

•Xabier Uribe-Etxebarria

•Josep Maria Canyelles

Moderatzailea: Mikel Urdangarin (Ahize-AEK)

MAHAI INGURUA: "Lidergoa, autozentratzea

eta asertibitatearen ekarpenak hizkuntzen

kudeaketari", Parte hartzaileak:

•Topagunea

•Artez

•Elhuyar Aholkularitza

•Emun

•Ahize-AEK

Moderatzailea: Nekane Golkoetxea (Huzezi)

Informazio gehiago: www.imh.es



LAGUNAK KOLTZOI DENDA- TEXTIL HOGAR

Krisi egoera hau errezten dizugu!

Erraztasun osoz, agiririk egin gabe!

**%10etik %25era arteko
beherapenak: koltxoi, somier,
ohe elektriko, ohe azpiko kutxa
eta abarretan.**

**Denboraldiko izarak,
flanelazkoak,pirineozkoak eta
BERRIA! korelinazko izarak ditugu!**



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



Garai berriaren aurrean

Euskal gizarteak ez du inoiz onartu eta bereganatu indarkeriaren estrategia.

Eskubide guztien oinarria pertsonak gara. Ez dago askatasunik, esparrua edozein dela ere, gizakion askatasuna errespetatu, errekonozitu eta aldarrikatu gabe. Norberak bizia eman dezake idealengatik, baina ez beste norbaitena.

Horiexek dira ETaren amaieraren arrazoiak. Denborak bere lekuan jarri du ETA, unibertsalak diren giza eskubideak ez errespetatzeagatik eta hiritarren borondatea ez onartzeagatik, eskubideak hain zuzen ere.

Orain, gertatutakoa barneratu, behar bezala interpretatu, ez ahaztu, gorrotoak eta sufrimenduak jatorri bera dutela ulertu eta indarkeriak sortutakoak direla asimilatzea dagokigu. Aldarrikapen eta helburu politiko guztiak zilegi direla ulertu, baina ez moduak. Biktimen senitartekoek sufrimendu handia jasaten dutela ulertu behar da, eta baita presoenek ere bai. Errealitate ezberdinak, baina sufrimendua berbera.

Ez da amets gaizto bat izan. Gertatu egin da. Ezin dugu biktimen, beraien familien eta presoen familien gainean utzi zama osoa. Zintzotasunez jokatu behar dugu. Akatsa errekonozitu, egindako mina onartu, eta ez dagoen lekuan harremana errekuperatu eta sortu.

ETAren erabakia bereziki 2005eko urtarrilaren 1etik espero nuen, Ibarretxe lehendakariak Espainiako gortean

estatuarekin zein harreman nahi genuen guk geuk erabakitzeke eskubidea defendatu zuenetik, alegia. Gertaera hark eta euskal gizarte abertzaleak adierazitako babesak alarma eta erreazio batzuk piztu zituen, besteak beste, ezker abertzalean atzera biderik izan ez duen eraldaketa.

Indarkeria iraun duen bitartean eta seguraski norbaitek onartu nahi ez arren, herri honen gehiengoak, errespetuz eta hitzaren bitartez, aberri eraikuntzaren bidea lantzen jarraitu dugu. Eta jarraituko dugu.

Alfredo Etxeberria



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

Norberak bizia eman dezake idealengatik, baina ez beste norbaitena

DOIMAK S.A.
enpresa elgoibartarrak
honako lanpostua betetzeko
deialdia egiten du:

- Ingeniari elektronikoa, elektriko/elektroniko saileko arduraduna (dokumentazioa, PLC programazioa, martxan jartzeak eta abar.)
- CNC Siemens ezagutzak baloratuko dira eta baita euskara eta ingeleza jakitea ere. Berehala lanean hasteko prestutasuna izatea.

Bidali zuen curriculumak adminis@doimak.es
 edo 943 740 988 (Tomas) telefonora deitu.

BIAK

ileapaindegia

San Inazio, 4
 Tel.: 943 742 725
 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

EDERGINTZARAKO
EGOKITUTAKO
LOKALA ALOKAGAI

BIAK ileapaindegiarekin konpartituta
Inongo konpromezurik gabe
deitu 943 742 725 telefonora.



Bertso-eskola izango du herriak

Amets Izagirre, Mikel Olaizola eta Ane Astigarraga izango dira Bertso-eskolako irakasleak.

Bertso-eskola berria sortu dute Elgoibarren. Baina ez lehen herrian bertso-eskolarik ez zegoelako; zegoen hura hobetzeko asmotan baizik. Bederatzi urte bete ditu Errazu Bertso-eskolako Ikastolan. Orain ordea, Ikastolatik irtenda, herrira zabaltzea erabaki dute arduradunek eta hori ez ezik, Elgoibarko bertsozale mugimendua indartu eta saretzea ere bada euren helburua.

Ainhoa Mendibil Artetxe

Bertso-eskolarena ez da kontu berria Elgoibarren, baina askok akaso, ez zuten orain artean gehiegi entzungo horren inguruan. Hain zuzen ere, Ikastolan egon delako orain artekoa eta bertan lana gogotik egin duen arren, Ikastolako umeetara mugatu delako Errazuren jarduna.

Aspaldi ereindako haziak

Ez da baina Errazu izan, Elgoibarko Bertso-eskola bakarra. 1981. urtean, Elgoibarko Izarrak sortu zuen Angel Ugartebururen laguntzarekin, 1995 ingurura arte bizirik iraun zuen Bertso-eskola. Angel Ugarteburu eta German Meabebasterretxeak egin zituzten irakasle lanak, baina, besteak beste, Jabier Arriola, Marikruz Intxausti, Pake Gartzia eta Daniel Legorbururen laguntza ere izan zuten.

Gero, zazpi urteko hutsunearen ostean sortu zuten Errazu Bertso-eskola Erlantz Allurrek eta Ainhoa Mendibilek. Ikastolako

Azaroaren 25etik aurrera hasiko da Bertso-eskola martxan

ikasleak ziren eurek orduan, eta bereziki horregatik eta erraztasunetik bultzatuta jarri zuten proiektua martxan Ikastolan. Urteak aurrera joan ahala, ikasle moduan hasitakoek hartu zuten erreleboa eta Mikel Olaizolarekin batera, Ane Astigarragak, Gorane Gonzalezek, Ane Belzak eta Garazi Kondek egin diote tira Bertso-eskolari azken urteotan.

Etapari berri bat

Arduradunek argi daukate. Ez dute ezer berria asmatu eta Bertso-eskola hau ez dute

harri azpitik, egun batetik bestera atera. Urteak, esperientzia eta ibilbide bat daukan proiektu baten segida dela azaldu dute, baina segida horri salto txiki bat eginda helduko diotela ere gaineratu dute. "Orain artekoa ondo egin da, eta orain datorrena ez da guztiz kontrakoa. Aurrekoak zituen hutsuneak betetzeko asmotan egin dugu aldaketa". Lekua, erabiltzaileak, eta aterpea ere berriak izango ditu. Plaza Txikiko eskolako lokalean emango dira klaseak, herriko ume guztiak izango dira erabiltzaile posibleak, eta Elgoibarko Izarra izango da hemendik aurrera proiektu honi aterpe emango dion eragilea. Arduradunen iritziz, behin herrira zabaltzeko pausua emanda, naturala hori delako.

Lan honetan, elgoibartarrak ez daude baina bakarrik. Azken urteotan, eskualdeko beste hainbat herritan ere indartu dira bertso-eskolak eta dagoeneko Mutrikun, Itziarren, Plaentxian eta Eibarren badaude lanean

Errazu bertso-eskolako Danel Mendibilek, Mikel Olaizolak eta Mikel Arrietak Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan kantatu zuten 2005. urtean.



diharduten taldeak. Horrek asko laguntzen duela azaldu dute arduradunek. Orain arte ere, Bertso-eskolari forma berria emateko lanetan jardun dutenean ere izan dute inguruko herrien laguntza, eta baita hezkuntza arautuan bertsolaritza ematen diharduen Iñaki Gurrutxagarena ere, eta aurrerantzean ere, halaxe izango delakoan daude.

Horretaz gain, inguruko herrietan meeen bertso-eskolak egoteak, lanerako aukera ezin hobeak zabaltzen dizkiela uste dute; umeek beste herrietako ikasleak ezagutzeko aukera dutelako, eta lagunak egiteak eta leku edo inguru berriak ezagutzeak beti motibatzen dituelako umeak, eta umeak ez direnak.

Jolasean ikasteko

Hizkuntzarekin ere jolas egin daitekeela erakutsi nahi diete Mikel Olaizola, Amets Izagirre eta Ane Astigarra irakasleek ikasleei. Bertsoari, beste funtzio batzuen artean, ondo pasatzearena ere egozten diotelako, eta gogoia dagoen bitartean, hori ere ikasi egiten delako. Euren helburua ez da bertsolari profesionalak sortzea. Pozik leudeke horrekin ere noski, baina horren aurretik, bertsoa gustuko dutenak bildu, eta elkarrekin ondo pasatzea eta bertsozaletasuna zabaltzea garrantzitsuagoak direlakoan daude. Era berean, Bertso-eskolak, bertsoan ikasteko ez ezik, beste gauza askotarako ere balio duela aipatu dute eta euren lanean, ahozkotasuna lantzea, euskara hizkuntza erakargarri bilakatzea, lotsa alde batera lagatzen ikastea eta Elgoibarko berbeta indartzea eguneroko helburu modura kokatu dituzte.

Eskolatik haratago

Esan bezala, Bertso-eskolako arduradunen helburu bakarra ez da eskola bera. Proiektua herritartzen hasita, herriari klase batzuk baino gehiago eskaini behar dizkiotela baloratuta, bertsozale mugimendua indartu eta saretzea ere badute beraien lehentasunen zakuan sartuta. Elgoibar herri bertsozale modura ikusten ote duten galdetuta, nahiko ezezko borobila ematen duten arren, badakite ekintza zehatzetan, Eguberrietako bertso jaialdian adibidez, herritarrek ondo erantzuten dutela. Euren esanetan, badago bertsoa gustuko duen jendea, baina ez da hori zabaltzen. Uste dute, bertsoari kalea konkistatzea falta zaiola Elgoibarren. Eta bertsolariak ez badira ere, bertsozaleak diren herritarrek erreferente bilakatzea. Horretarako, indar berezia egingo dute sare hori sortu eta elikatzen; uste dutelako, Bertso-eskolari ere mesede egingo diola horrek, eta Bertso-eskolak horri.

Kepa Mendikutek, Irati Agirreazaldegik, Jon Gerrikabeitiak eta Jon Garate "Katalok" jardun zuten besteak beste, Elgoibarko Izarrako bertso-eskolan.

Ibilitakotik, aurrera

Proiektu berri batek, edo proiektu baten etapa berri batek beti sortzen du bertigo pixka bat, baina ez da Bertso-eskolakoen kasua. Orain artean egindako ibilbideak eman dien esperientzia inork ez diela kendu argi laga nahi izan dute, eta etapa berri hau abiatzeko daukaten ilusioak eta konbentzimenduak, lasaitzen dizkie urduritasunak. Galtzeko ez dago ezer euren esanetan, eta lan polit bat egiteko berriz, aukera mordo bat.

NOIZ ETA NON

Elgoibarko Izarrak Plaza Txiki-ko eskolan daukan lokalean izango dira Bertso-eskolako klaseak.

Barixaku arratsaldetan egingo dira, baina oraindik orduak zehaztu gabe daude. Izena ematen duten ume eta gazteen ordu-tegietara moldatzen ahaleginduko baitira irakasleak.

IZENA EMATEKO

Elgoibarko Izarran eman behar du izena Bertso-eskolara joan nahi duenak eta datorren azaroaren 18ra arte, barixakuar arte, dauka horretarako epea.

Izena ematearekin batera, 20 euro ordaindu beharko ditu ikasle bakoitzak, ikasturte osoko kuota modura.

Aurkezpena, azaroaren 25ean, 17:00etan izango da, Bertso-eskolako lokalean.



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




ELGOIBARKO UDALA



MENGAROKO UDALA



APTE AIRE ET COOPERATIBA



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Kaixo, Alfredo

Hara zer zenioen hirigintzaren inguruan hauteskundeetako erreportaje berezian: "...ibaia integratu nahi dugu. Ibaiari bizkarra emateari utzi nahi diogu eta gure herria haren aurrean kokatu. Baliabide natural garrantzitsu hori udalerrian integratu nahi dugu, eremu zabal, ireki eta irezgarrien bidez..."

Beste behin, zuen hauteskunde kanpainako hitzak urak eraman ditu. Bigarren urtez, ez duzue Gazte Asanbladarekin ibaiarekiko aipatzen duzuen konpromisoa bete nahi izan, nahiz eta komunean ibaiaren egoera hobetzeko asmoa dugun. Hori diozue behintzat. Ibaia ez dela zuen eskumena jarri duzue aitzaki. Hori ez dugu dudatan jartzen, bai ordea, zuen ibaiarekiko konpromisoa eta, oro har, ingurugiroarekikoa. Zuen esanen eta proiektuen errealitate kontrajarrien artean, hau puntatutako bat besterik ez da.

Bi urte hauetan aurkitutako zabor mota ikusita (kutxillak, latak...), argi dago herritar askok zabortegizat dutela gure ibaia; jaurtitako ehunka zabor ikustea besterik ez dago. Bigarren urtez laguntza eskatu dizuegu: gu zaborra jasotzeko prest agertu ginen eta zuen laguntza eskatu genuen, arrantzaleen pasealekura ateratako zaborra jasotzeko. Erantzuna berriro ere ezezkoa izan zen, eta abuztuaren 20tik hor dago zaborra.

Azaroaren 13an, Debegesatik antolatutako Ibai Lagun programan Gazte Asanblada bezala parte hartuko dugu, ibaia garbitzeko jardunaldian eta espezie inbaditzaileen bila. Idatzi hau aprobetxatu nahiko genuke herritarrek jardunaldi hauetara animatzeko. Ibaiaren egoeraz jabetzeko, bertara gerturatu eta nola dagoen gertutik ikustea baino gauza hobirik ez dago.

To be continued...

Elgoibarko Gazte Asanblada ☺

AHT EZ-ek Partido Nazionalista Verdeari

Zuen ideiekin bat ez datozenak kriminalizatzeko eta jipoitzeko jarrera hobea delakoa? Ez dugu zuen mendekua besterik irabazten Lurra eta ekonomia babestearren. Ez zenukete sinetsiko, aberasten gaituena ez dela dirua esango bagenizueke.

Herriari galdetzea nahastea da? Wall Streeteraino iritsi direla benetako demokrazia eskaerak! Zuen babesaz harro bazaudete, zergatik ukatu eztabaida? Zenbat akuifero eta iturburu kaltetu dute obrak Udalaitz eta Herrioko sistema hidrologikoetan? Onartu beharra dago negoziotarako abilak zaretela, baina ez ukatu beste ikuspegi bat izatea. Naturaz, ekologiaz, nuklearrez, ezberdintasun sozialiaz eta abar urte askotan aritu gara. Orain "benetako" ekologistek Elgoibar Berdea diozue. Hurrengoan ere, kanpainako esloganarako soilik bada ere ideia aurrerakoi bila hasten zaretenean, ez ahaztu gizartearen errotuta dauden gure leloez. Zuen estilo autopropagandistiko aspergarriari esker ez zaigu argi geratu noiz adierazi dugun euskal herritarrok AHTa nahi dugula, batez ere, 23 herrik ezezkoa eman diotela jakinda. Ezta zer iritzi duzuen ertzaintzak Urbinan egindako basakeriaz.

Gipuzkoarroi EAJn baloreak erakusteko helburua duela esan digu Egibarrek. 116 urteotan lanean aritu eta gero zergatik izango ote da Elgoibarko 8.999 hautesletik 6.727k nahiago izan dugula zuei txeke zuria ez ematea?

Ezer gutxi eman duten karta hauek gustu handiz hartu ditugu. Beraz, ez dugu gure aldetik azkena denik esango, rifi-rafeak albo batera utzi, datuak mahai gainean jarri eta eztabaidatzeko prest jarraitzen dugu. Eta, zuek?

AHT EZ-Elgoibar ☺



Justo Arriola

Ez jakixat, Arkaitz, zer dan barregarriagua: Yolanda Barcinari jaurtita-ko tartakadak edo berak esandakua: ezker abertzaliak ez dabala kondenatu. AHT-ren banketia narrutik ordaintzen juagu, eta gaiñera, postria bertara erutiagatik keija entzun

bihar.

“Bizitza osoko demokratak” biolentziaren kontura jarabixen jokia indezentia dok. Ille bat bera ere harrotu gabe, eserialdi baketsu batian polizien makillakada proportzionatuak gorputza errebertatzen dixen bezela espexera eramaten haute, heure iritzi politikua ematiagattik.

Entzun diuek akaso zeozer PP, PSOE eta EAJ-kuei NATOk Libian egindako sarraskiez edo Gadafiren bortxaketa eta lintxamenduaz? Hori terrorismua ez badok...

“Lagaiazue pakian esateko era eraginkorrena hauxe da: bozkatu Amaiur”

Aratuste (edo hauteskunde, antzerako-parezido) kanpaiñan gaudela-eta, zera esan bihar dixat: konfiantza haundixagua jaukadala sugegorri batengan “bakezale” hónengan baiño. Ez dezatela espero nere botua merkatuen tiraniaren aurrian belauniko eta herritarrak ittotzen dabixazen alderdi hórrek. Poltronatik etarutzen ez bajaittugu, herriaren nahiari dioten bildurra dala-eta, ez dok berehalakuan alilegatuko demokrazia ekonomia.

Errege, general, kardenal, epaille “inpartzial”, txorizo, ustel, torturazaille eta abarren *una-grande-y-libre* Estatuarekin zerikusi txikixenik ere ez jaukadanez, dudatan egon nitzuan abstentziuarekin. Baiña azkenian pentsatu juat guzti hórrei *lagaiguzue pakian!* esateko era eraginkorrena hauxe dala: bozkatu Amaiur!



Arkaitz Irureta

Anarkista naizen aldetik, ez nauk botu eske hasiko eta are gutxiago dioken bezela inposatutako Espaiñiarako. Halere, sasidekrazia honek anarkistoz parre egitten jok, eta botua ez ematiak PP-PSOE eta PNVren poltronak betikotzeko besterik ez jok balixo.


68ko maiatzian De Gaule eskuindarra jaguan Franzian. Iraultzako ideia anarkistek ondorengo hauteskundietan parte-hartzia jeitsiarazi juen, eta De Gaule indartuta atera zuan, nahiz eta gizar-tarian islada bestelakua izan.

M15ekuekin ados nagok, baiña senatua ezabatzeko boto txurixak eskatzen jaittuek akats bera errepikatuz. Estatu espainiarreko herrialde batzutan lista txurixak atera jaittuek boto txuri hórrek balio dezaten (votoenblanco.com) baiña Gipuzkuan ez jagok aukera hori. Beraz, botua eman eta Anarkizantia izatera pasatzia dok nere aukeria.

Espaiñiarekiko gatazkia konpondu nahixak Euskal Herri osoko alderdi abertzale guztixen baturia ekarri jok, eta hori eredugarria dok. Beren programan senatu eta diputaziuekin bukatzeko ideia falta arren, autonomista ez geranon aukera bakararra dok. Hauenaz gain, gertutik jarraituko jaittuat berdien emaitzak.

“Anarkista naizen aldetik ez nauk boto eske hasiko inposatutako Espainiarako”

Edozein kasutan, botua egunero ematen dok; euskaraz bizitzen, nagusixak eredu hartuz, auzolanian, birziklatuz, langillion eskubidiak aldarikatuz edo baserrixak eta ondorioz natura eta osasuna bultzatuz, hots, Euskal Herri justuago bat eraikiz. Horrek ezberdintzen gaitu Espaiñiako pikareskatik eta autonomisten kapitalismotik.




ESKERTZA

JOSE M^a AGUIRRE GOYOGANA

2011ko urriaren 31n hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



1983ko eta 1988ko ufaletan baino euri gehiago egin du asteburuan Elgoibarren

Asteburuko euriteak kalteak eragin zituen Elgoibarren eta Mendaron

Gogotik egin zuen euria joan zen asteburuan, eta Udaletik emandako datuen arabera, 1983ko eta 1988ko ufaletan baino euri gehiago egin zuen joan den asteburuan Elgoibarren, baina ibaian eginiko lanei esker kalteak ez dira ordukoak izan. Ibaian emariari eta uraren kalitateari buruzko datuak jasotzen dituen Altzolako ur neurgailuak jasotako datuen arabera, zapatuan metro koadroko 89,8 litro ur bota zituen, eta domekan, 123,1 litro. Eurite horrek kalte handiak eragin zituen Elgoibarren eta Mendaron.

Elgoibarren baserri auzoetan eragin zituen bereziki kalteak urak; eta errepide mozketak eta luiziak izan ziren Aiastia, Arriaga eta Idotorbe auzoetan. Altzolako bizilagunei ere une kezagarriak bizitzea tokatu zitzaizen domeka iluntzean, izan ere, Deba ibaiak gainezka egin baitzuen Bainuetxeko Zumardian eta Altzolako Urak dagoen eraikin parean. Altzola eta Mendaro artean, berriz, moztuta egon zen N-634 errepidea zenbait unetan. Herrigunean, bestalde, zenbait etxebizitzetako baxuetan eta garajeetan sartu zen ura.

Kilimoi erreka gainezka

Mendaro, bestalde, isolatuta geratu zen domeka arratsaldean. Altzola parean bidea itxita egon zen une batzuetan eta Deba alde-rantz ere itxi zuten N-634 errepidea. Errepidez ezin eta trenez ere ez, Bilbo eta Donostia arteko tren zerbitzua etenda egon zelako.



Garagartza eta Trinitate kaleetan eragin zituen euriteak kalte handienak Mendaron. Deba ibaiak gainezka zetorrenez, ezin zituen Kilimoi erreka urak behar bezala xurgatu eta ura estolderietatik irteten hasi zen. Kilimoi erreka ere gainezka egin zuen domeka gauean, eta erreka ondoan aparkatuta zegoen auto bat estali zuen urak.

Astelehen goizean nabarmenak ziren urak lagatuko arrastoak, eta lokatz eta zikinkeria asko garbitu behar izan zituzten bizilagunek eta suhiltzaileek.

Argazki eta informazio gehiago: www.elgoIBARREN.net

PSE-EEK larrosak banatu zituen eguneneko azokan



PSE alderdiak, azaroaren 20an egingo diren Espainiako kongresurako eta senaturako hauteskunde kanpainaren baitan, kalera irten ziren joan den egunean, hilaren 10ean. PSE alderdiaren kanpainetan ohikoa den moduan, herritarrei larrosak banatuaz eskatu zuten alderdiarentzako botoa.

Pedro Muguruza ikastetxearen erabilera eskatuko du Udalak

Elgoibarko Udalak Pedro Muguruza ikastetxearen erabilera ahalmena berreskuratu nahi du. Ikastetxearen jabea Udala da, baina Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak dauka ikastetxeko gelen eta lokalen erabileraren ardura.

CIP zentroa Eibarrera eraman zutenetik, gela eta lokal asko geratu dira hutsik Pedro Muguruzako eskolan, eta espazio horren erabilera berreskuratzeko une egokia dela uste du Udalak. Une honetan herriko hainbat elkarte erabiltzen dituzte hango gelak, baina Ricardo Garateren esanetan, beste elkarte asko ere lokal beharrean daude, eta behar horiei erantzuteko aukera egokia izan daitekeela uste du.

Era berean, baina alderantziz, San Rokeko haurtzaindegia erabilera Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailari emango dio Udalak.

Izena **Gemma Agirregomezkorta**



Gemma Agirregomezkorta elgoibartarrak jaso du aurtengo Gure Balioak saria. Debegesak martxan jarritako kanpainaren barruan, Debabarreneko eskualdean gizarte-balioetan oinarritutako jardunbidea izan duen pertsona edo entitatea saritzea da helburua, eta 30 bat laguneko zerrendatik, Miski elkarteko Gemma Agirregomezkorta aukeratu dute. Bereziki, azken hamar urtetako ibilbidea hartu dute kontuan, Peruko umeak eta familiak laguntzen egindako lana, hain zuzen ere.

Zenbakia **%3**

2012rako tasak eta zergak %3 handitzea erabaki du Osoko Bilkurak, hau da, KPIa igotzea aurreikusten den kopuru berbera. Hala ere, badira kopuru horren gainera gogotzen diren hainbat alor, besteak beste, zinerako sarrera eta Herriko Antzokiko kultur ekitaldiak, eta San Lazaro egoitzako tasak. Zaborraren gaineko tasa, bestalde, %2,89 garestituko da. Esan beharra dago, familia ugariak, langabetuek eta ikasleek laguntza bereziak jasoko dituztela.

Irudia **Oroimenaren Eguna**

Oroimenaren Eguna izan zen azaroaren 10ean, eta horren harira, indarkeriak eragin dituen biktimak gogoratu zituen Elgoibarko Udalak. Udaletxeko balkoian Elgoibarko bandera jarri zuten hainbat pertsona, eta Giza Eskubideen Parkean dagoen Gernikako arbolaren kimuaren azpian lore sorta bat jarri zuten Udaleko hainbat zinegotzik. Gai honi lotuta, elkarbizitza helburu duen prozesua jarriko du martxan Alfredo Etxeberria alkateak legegaldia honetan.



Ibaia garbituko dute domekan

Debegesak antolatuta, Deba ibaiaren garbituko dute domekan. Ibai bazterrak garbitu eta hondakinak batzea izango da ekimenaren helburua, eta edozein herritarrek hartu dezake parte. Interesatuak 943 82 01 10 telefonora deitu dezakete.

Edergintza produktuen erakusketa hilaren 18an

Datorren ostiralean edergintza produktuen erakusketa egingo dute Txariduna hotelean. Goi mailako kosmetika produktuak jarriko dituzte ikusgai, eta norberaren azalarentzat egokienak diren produktuak ezagutzeko aukera egongo da. 16:00etatik 21:00etara egingo dute erakusketa, eta ondoren, nahi duenak bertan afaldu ahal izango du, 22 eurotan. Afarirako izena ondorengo telefonoan eman daiteke, hilaren 16a baino lehen: 665 703 173 (Jaione).

Elkartasun erretratua

Azaroaren 20ko hauteskundearen harira, Amairu koalizioari babesa emateko erretratua aterako dute bihar, 13:00etan Plaza Handian, *Eraiki zubia* lemapean.

Elkartasun zozketa

Elkartasun zozketako zenbaki sarituak dira ondorengoak: Lehen saria: furgoneta, 012.866 (Ordezkoa, 088.631). Bigarren saria: nekazal etxe batean hamabost eguneko egonaldia, 033.770 (ordezkoa (084.905)). Hirugarren saria: ordenagailu portatila, 043.393 (086.576).

Burgosera bidaia antolatu du jubilatuen egoitzak

Azaroaren 30erako Burgosera bidaia antolatu du jubilatuen egoitzak. Bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 41 euro (hamaiketako eta bazkaria barne).

Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz



EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK



Jarri zaio izena, izanari

Izena duenak izana duelako



Elgoibarko Izarrak eta Udaleko Euskara Sailak elkarlanean antolatutako *Izanaren Izena* hitzaldi zikloa amaituta, paperotara ekarri ditugu hitzaldietan landutako gaiak. Denetan ere, herritarrek gustura jardun dute entzule lanetan, eta izena izan da aurtengo hitzaldi-zikloaren bizkarrezurra, Elgoibarko euskararekin batera.

Elgoibarko toponimia eta toki-izenak izan zituzten hizpide, Amaia Pinachok, Nerea Alabak eta Mikel Gorrotxategik.

Jesus Mari Makazagaren txanda izan zen hurrengo. Elgoibarko ahozko euskararen inguruan argitaratutako bere lana aurkeztu zuen Makazagak herritarren aurrean eta berea izan zen Kultur Etxera jende gehien eraman zuen hitzaldia.

Bukatzeko, Mikel Gorrotxategiren *Amaia debekatuta zaude!* saioak eman zion amaiera hitzaldi zikloari, euskal izen-abizenen historia berreskuratuz.

Izanaren izena hitzaldi-zikloaren antolatzaileak: Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea eta Elgoibarko Udaleko Euskara Saila. Egilea **BARREN** astekaria.

Elgoibarko toponimiari begira

Elgoibartarron izana ikusteko 2.200 izen

Udalak sortutako Gotzon Garate bekak eman zion hasiera Elgoibarko Toponimia biltzeko lanari. Leku-izenak bildu, sailkatu, kokatu eta finkatzea zen lan horren helburua, eta hamalu hilabeteko epea jarri zuten horretarako. Bi proposamen jaso zituen Udalak, eta epaimahaiak Nerea Alaba eta Amaia Pinacho arrasatearren proposamena aukeratu zuen. Toponimia lana etengabea eta amaiezina den arren, momentuz behintzat toponimo biltze eta arautze lanari amaiera eman dio Udalak.

Elgoibarko bi mila toponimotik gora jaso, bildu eta arautu dituzte Amaia Pinachok eta Nerea Alabak, Mondragon Unibertsitateko irakasleek, Udalak emandako Gotzon Garate bekari esker. Bi bekadunek uneoro izan dute Euskaltzaindiaren laguntza, eta bereziki, Mikel Gorrotxategi Onomastika Batzordeko idazkaria izan dute bidelagun.

Lau izan dira, bereziki, lan honen helburu nagusiak: Elgoibarko toponimia aztertzea eta biltzea; leku-izenak gordeztea eta galdutakoak berreskuratzea; toki-izenak arautzea; eta toponimia gizarteratzea. Hasiera batean, idatzizko dokumentuak aztertu zituzten bekadunek, eta Elgoibarko Udal artxiboan ez ezik, Eibar, Soraluze edota Oñatiko artxiboetan ere jardun zuten lanean.

Idatzizko informazioa datu basean bildu ostean, ahozko informazioa biltze-



ari ekin zioten, idatziz jasotako leku-izenak bizirik zeuden ala ez jakiteko, eta bide batez, non zeuden jakiteko. Kaleko eta baserrietako bizilagunekin egin zituzten elkarrizketak, eta behin eta berriz nabarmendu dute Nereak eta Amaiak, herritar horien laguntzarik gabe ezinezkoa izango zela lan hori burutzea.

Eta toponimia lana sekula amaitzen

ez bada ere, Elgoibarko mapa toponimikoa osatuta geratu da. Udaleko Euskara Sailak abendurako kaleratuko ditu toponimia mapak eta esku-orriak.

16-18 hilabeteko lana izan da hori guztia egitea, eta bekadunek esandakoaren arabera, lan zaila eta neketsua izan da, baina gustura agertu dira lortutako emaitzarekin.

BERRIKI ARAUTUTAKO KALE IZENAK

Lan honen helburua, euskal leku izenak euskal grafiaz modu egoki eta zuzenean idaztea denez, Euskaltzaindiak proposamena egin dio Elgoibarko Udalarari. Dagoeneko, behin behineko onarpena eman dio Udalak lanari eta herritarrek, azaroaren 17ra arte, ekarpenak egiteko aukera dute.

Aitzbizkar kalea - Aizpizkar kalea
Apraiz kalea - Apatriz kalea
Ermuaran bide - Ermuaranbide kalea
Erretxindi kalea - Erretsundi kalea
Foruen Plaza - Kalegoen plaza
Parrokia atzeko parkea - Bolatokiko parkea
Gabriel Krutzelaegi - Gabriel Kurutzelaegi
Goiko Errotako zubia - Goikoerrotako zubia
Ibai-tarte kalea - Ibaitarte kalea
Iñiguez Karkizano kalea - Iñiguez Karkizao kalea
Juan Muguerza kalea - Juan Mugertza kalea

Leku Eder parkea - Lekueder parkea
Morkaiko kalea - Morkaiku kalea
Nafarroa Plaza - Kalebarren plaza
Pedro Muguruza etorbidea - Pedro Mugurutza etorbidea
San Juan Plaza - San Joan Plaza
Txankakuako zubia - Txankakoako zubia
Upaiz zaharra kalea - Uparitzaga kalea
Urasandi kalea - Urazandi kalea
Urasandi parkea - Urazandi parkea
Xixilion kalea - Zizilion kalea

Elgoibarko ahozko euskara



Jesus Mari Makazaga

Elgoibarko ahozko euskeriaren inguruan argitaratutako liburua aurkeztu zaban Jesus Mari Makazagak herritarren aurrian, hitzaldi zikluaren baitan, zegokixon hitzaldixan. Horrenbeste orrittan bildutako lana ordu-bete inguruko hitzaldira ekartzia zailla izan arren, gustora eta adi eduki zittuan bera entzutera juandakuak. Elgoibarko berbetia euki dau BARREnek ere, Jesus Marirekin, berriketa-gai.

"Euskeria aisialdirako erakargarria egittia falta jaku"

Makia bat edadeturi entzun diogun esaldixa da: "Guk ez. Hárek, Tolosaldeko hárek egitten debe ondo euskeraz". Badakitt ez zaudela ados horrekin.

Ez, ez. Horixe ez naguala; ezta gitxiagorik ere. Egixa da badaguala hamen inguruan, Eibarren-eta, erderakadetara jotzeko tradizio bat, joera bat, eta hori kritikatu izan digue, baiña hitzaldixan ere aittatu naban moduan, azaleko kontuak dira hórrek. Berba batzuk gorabehera, sintaxia da benetan hizkuntziaren muiña. Eta alde horretatik, nik jasotako euskeria ez da zikiña; esaten zaben-eta, Tolosaldekua garbixagua zanan kontua ere. Euskera edarra, zihatza, aberatsa, poetikua, barregarria... momentuan hiztunak bihar dabana emango diona da nik jaso dotena.

"Bentanatik beittuta kaballua ikusi dot" esan neikizu, orduan?

Ba bueno, nik neuk hamengo euskeriaren ezaugarri bezela hartzen dot hori. Beste gauza bat da, hizkuntzia ondo ezagutzen ez dabanen akatsa; adibidez, berba bat burura etorri ez eta erderara jotzen dabanen kasua. Orkatillia edo eskuturra esan biharian tobillua edo muñekia esatia ez dot ondo ikusten, baiña tradizio bat dauken berbak badauke lekua gurian.

Eta hori bera idatziko banau?

Kasu horretan, aldatu egingo litzake. Erregistraren arabera erabaki biharko litzake kasu horretan, zer egin. Erregistro zaindu samarra erabili nahi badozu, biharbada ez; baiña Elgoibarko eran eman nahi badozu testu bat, zergaittik ez?

Gure zaharrak euren euskeria ez zala esaten zaben arren, badakigu bazala; eta on eta dotore askua, gaiñera. Orain, baliabidiak sobran daukaguz, gaztiak jakin badakixe euskeraz, lehengo aldian askok, baiña erabilleria ez da mailla berian ixo. Zergaittik ez?

Galdeta konplikatu da hori. Jakingo bagendu, ez giñake horrela egongo. Baiña egixa da, adibidez, eta liburuan ere esaten dot hori, gure zaharren euskeria askoz ere zorrotzagua zala. Eta jolaserako eta aisialdirako-eta, aukera gehixago zukela euren euskeriarekin. Eta hori oso inportantia da kaleko erabillerarako. Eskolan-eta erabiltzen dabe adibidez, baiña gero, urtetzen debenan eskolatik, akabo. Arlo horretarako gaztelania identifikatzen dabe euskeria baiño gehixago, eta horrek esan nahi dau, tresnia zorrotzu bihara daguala. Euskeria aisialdirako

erakargarria egittia falta jaku. Prestigio kontua ere hor dago: gurasuok, adiñekuok jarrera aldatzen ez badogu, erderiak eukiko dau euskeriak baiño prestigio hobia beti.

Lagun bat hasarratu egitten da elgoibartar bat "det" esaten entzuten dabanian. "Detitis" izena ere jarri dio horri. Arrazoirik badauka hasarrazteko?

Bueno, lehenengo galdetu biharko leuke zure lagunak, ia *det* esan daban hori Altzolakua dan. Altzolako jentiak, adibidez, *det* esaten dau eta. Hain zuzen, *det-dot* erabillera hori bereizten daban marria, isoglosa esaten jakona, Altzola eta Elgoibar bitxartian dago. Orduan, ba bueno. Nik ulertzen dot esatia "Elgoibarren dot esaten da", jeneralian hala dalako, baiña ezaugarri-aldaketa horren muga-mugan gaude, eta historikoki, gipuzkeratik gero eta gehixago dauka gure berbetiak; beraz, prozesu horren barruan ikusten dot nik hori ere.

Zuk jasotako ahozko euskeriaren, hamen, gaztiak darabixenaren artian, alderik badago?

Bai, aldatu da, bai. Hori zehazki ez dot ikertu, baiña kalia ere banabil, eta hori igartzen da. Eta uste dot ahozko hizkuntziaren estrategia komunikatibuetan ere asko galdu dala. Adittuak esaten debe azkenengo 400 urtietan baiño gehixago aldatu dala hizkuntzia azken 40 urtietan. Eta bai, egixa da lehen ere gertatuko zala hori; ziklikua da hori, eta normala, hizkuntza guztietan gertatzen dana. Baiña, aukeran, azkar eta ugari gertatu dira aldaketak azken urtietan.

Aurrekuen euskera hori berreskuratzaren aldekoa zara, ala oraingua, eraldatzen dabilen hizkuntziaren emaitza naturala baino ez da?

Bai, ezin doguna pentsatu da aldatzen ez dan gauza bat dala hizkuntzia. Normala da aldatzia. Baina aldatuko balitz eta jarraituko bagendu edukitzen gure bihar komunikatibo danak betetzeko balixo daban euskeria, ba primeran; nahiz eta desberdiña izan. Nahixagoko nuke aldaketia 400 urte hórretan jua zan bezela jua izan balitz, eta ez orain batpatian demaseko aldaketia emanda.

Lana egin dozu bapo. Baina ez zenduan, ba, hori dana, apal batian gertatzeko egingo, ezta?

Ez, ez. Nik ez dot lan hau amaiera bezela ikusten, eta hau dana landu bihara daguala argi daukat. Ez da erreza baiña, zela egin asmatzia.

Euskal izen-abizenen historia

Amaia, debekatuta zaudel! Hori izan zen Mikel Gorrotxategik, Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko idazkariak, bere hitzaldiari jarri zion izenburua.

Gaur egungo euskal izenak aipatuz ekin zion hitzaldiari, eta garbi laga zuen, gure izenen historia luzea ez dela beti goxoa izan.

EUSKAL IZEN ZAHARRENAK, ERROMATAR GARAIKOAK

Mikelek esan zuenez, erromatar garaikoak dira ezagutzen ditugun euskal izen zaharrenak. Andere, Bihotz edo Haritz bezalako izenak latinez idatzitako hilobietan azaltzen dira. Erdi Aroko dokumentuetan ere, euskal izen ugari ditugu. Euskarazkoak batzuk, eta latinetik hartu eta euskarara ekarritakoak besteak. Lehen kristau izenak ere orduan azaldu ziren (Eztebe, Garazi, Jurgi, Mikel).

Baina XVI. mendean, Trentoko Kontzilioarekin, administrazio zibileko erregistroan gaztelania edo frantsesa erabiltzea erabaki zen. Gainera, santu izenak jartzera behartu zuten jendea, euskal izenak baztertu. Azkenik, derrigorra ez bazen ere, umea jaiotzen zen eguneko santu izena jartzeko gomendioa ere zabaldu zen. Euskal izenak desagertzen joan ziren Trentoko Kontzilioaren eraginez, eta, kasu askotan, toponimoetan baino ez ziren gorde euskal izenak.

EUSKAL PIZKUNDEA ETA SABINO ARANA

Euskal izenen egoera tamalgarría ikusita, 1897an *Egutegi Bizkaitarra* argitaratu zuen Sabino Aranak. Bertan, gaur egun arruntak baina orduan ezezagunak ziren izen asko proposatu zituen: Iñaki, Koldo, Miren, Agurtzane ... Santutegia ere euskaratu zuen, eta hainbat euskal izen asmatu zuen.

Eliza katolikoak propio debekatu zituen Sabino Aranak proposatu zituen euskal izenak, eta 1904ra arte ez zituen onartu. Erregistro Zibilean, berriz, 1930. urtera arte egon zen debekatuta euskal izenak erregistratzea. Bilboko kasuan, adibidez,



Mikel Gorrotxategi

1930ean 1.094 haur jaio ziren eta 16k bakarrik jaso zuten euskal izenen bat.

Erromatar garaikoak dira ezagutzen ditugun euskal izen zaharrenak

GERRA ZIBILA ETA DEBEKUAK

1936an piztu zen Espainiako Gerra Zibila, eta horrek ere eragin handia izan zuen euskal izen-abizenen historian. 1938an, esaterako, euskal izenak erregistratzeko debekua etorri zen:

“La España de Franco no puede tolerar agresiones contra la unidad de su idioma, ni la intromisión de nombres que pugnen con su nueva constitución política”.

Euskal izena zuten guztiak joan behar zuten erregistrora izena aldatzera, baina Mikelek esan zuenez, epaileak izan ziren, kasurik gehienetan, euskal izenak erdaratu zituztenak. Gainera, ez zituzten euskal izenak bakarrik aldatu; Lenin, Amor, Libertad edo Armonia bezalako izenak ere debekatuta zeuden. Mikelek erakutsi zuen

dokumentu batean ikusi genuenez, Areetan 500 pezetako isuna jarri zioten heritar bati 1938an euskal izena izatearren. 1957an, Amaia edo Itziar bezalako izenak debekatuta zeunden, eta Maria Fin edo Maria Estrella izenak erregistratu ziren. 1970ean, berriz, Iruñeko epaile batek Amaia izena inskribatzea debekatu zuen.

1971n GAUZAK ALDATZEN HASI ZIREN

1971n euskal izenak zulo beltzetik irteten hasi ziren. Euskal izenen pizkundea eman zen, eta horretan zeresan handia izan zuen Jose Maria Satrustegi (Arruazu, 1930-2003) apaiz nafarrak. Euskal izendegia argitaratu zuen 1972an, indarrean zegoen legedia gainditzeko zirrikituak erabiliz. Mikelen esanetan, Satrustegiren lanak “erabat aldatu zuen euskal izen-abizenen historia”.

DEITURAK EDO ABIZENAK

Euskal izenen historiaren errebasoa egin ondoren, deituri edo abizeni erreparratu zien Mikelek, izenei baino dezente denbora gutxiago eskaini bazien ere. Kronika osoa eta abizenen gainean esandakoak irakurri edo ikusi nahi badituzu, jo www.elgoibarren.net helbidera.

Erretratu zaharra



1971

Aste honetako erretratu zaharra Jesusa Arozena Garatek ekarri du BARRENEKO erredakziora. Maria Mercedes Zubiaurren ezkondu aurreko agurra ospatu zuten egun horretan koadrilako lagunek, eta primeran pasatu zutela gogoratzen du Jesusak. Ikus dezagun zeintzuk diren emakume horiek. **Ezkerretik eskumara:** Conchi Riaño, Marifran Arrillaga, markinarra, markinarra, Maria Mercedes Zubiaurre, markinarra, Jesusa Arozena, Mari Kruz Urzelai, Maria Luisa Iribarren eta Ana Jesus Lejardi.

ekintzaitasuna

Debabarrena gara
www.gurebalioak.com

gurebalioak
DEBABARRENA

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketatik kanpo geratu da Uxue Alberdi

Finalerako sarrerak Elgoibarko Izarran daude salgai

Idiazabalen jokatu zuen Uxue Alberdi bertsolari elgoibartarrak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final laurdena, baina ez zuen finalerdietara pasatzerik lortu. Sei bertsolari izan ziren lehian, eta elgoibartarrak bosgarren lekuan amaitu zuen kanporaketa, 461 punturekin. Jon Martin izan zen lehen sailkatua 494 punturekin, Felix Zubiak 482 puntu lortu zituen, Nerea Elustondok 474,5 eta Ainhoa Agirreazaldegik 468,5. Azken lekua Oier Aizpuruarentzat izan zen, 457 punturekin.

Finalerako sarrerak eta autobusa

Abenduaren 18an jokatuko dute Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala Donostiako Ilunbe zezen-plazan, eta nahi duenak, Elgoibarko Izarran erosi ahal izango ditu sarrerak eta autobus txartelak, abenduaren 5a baino lehen. Sarrerak 18 euro balio ditu, eta autobus txartelak hamar euro (bazkideek, 8 euro). Informazio gehiago 943 741 626 telefonoan.



140 perretxiko mota baino gehiago jarri ditu ikusgai Karakate elkarteak aurtengo erakusketan



Hego haizea eta giro lehorra izan dira nagusi udazken hasieran, eta Karakate Mikologi elkarteko kideak beldur ziren Perretxiko Erakusketa antolatzeke ale nahikoa batzeko gai izango ote ziren. Azkenean, baina, sorta ederra batzea lortu zuten, eta 140 perretxiko mota baino gehiago jarri zituzten ikusgai. Herritarrek domekan eduki zuten perretxiko erakusketan batutako aleak ikusteko aukera, eta antolatzaileek esandakoaren arabera, jende dezente hurbildu zen Kultur Etxeko erakusketa gelara. Astelehen goizean, berriz, ikasleentzako jardunaldi didaktikoak eskaini zituzten bosgarren urtez jarraian. Elgoibar Ikastolako ia 200 umek jaso zituzten Karakate elkarteko adituena azalpenak.

Magosto Eguna bertan behera geratu da

Biharko iragarrita zeukan Galiza Etxeak urteroko Magosto eguna, baina krisi ekonomikoa dela-eta, bertan behera geratu da ekitaldia. Aurten, beraz, ez dute Magosto Eguna ospatuko. Datozen urteetan egoerak hobera egingo duela espero dute antolatzaileek.

Txirri, Mirri eta Txiribiton junior pailazoaren emanaldia

Txirri, Mirri eta Txiribiton junior pailazoek *Barre Egin* saioa eskainiko dute domekan, Herriko Antzokian. Kantuz jantzitako saioa izango da: *Zapi Zuria* edo *Altza Pelipe* bezalako abesti mitikoez gain, kanta berriak ere eskainiko dituzte. Ordu-bete inguruko saioan esketx ezberdinak egingo dituzte, *Barre Egin* le-mari eutsiz eta haurren parte hartzea sustatuz. Ikuskizuna 16:30ean hasiko da, eta sarrerak egunean bertan egongo dira salgai, Herriko Antzokian.

'Ongarri bilduma' argazki erakusketa zabalduko dute gaur, 18:30ean

Ongarri argazki taldeak 1980an hasi zuen bere ibilbidea, eta urte horietan zehar hainbat ekintza eta erakusketa antolatu ditu. Horri esker, *Ongarri bilduma* osatu dute, eta hila-bete honetan 80. eta 90. hamarkadetako erretratuak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean. Gaur iluntzean zabalduko dute erakusketa, eta azaroaren 26ra arte egongo da ikusgai.

'Apur batean soka dantza' erakusketa, Gernikan

Ilñaki San Martin 'Soarte' argazkilaria *Apur batean soka dantza* erakusketa Gernikako Euskal Herria museoa jarri dute ikusgai. Erakusketa soka dantzaren kolorezko 43 argazkiz osatuta dago, eta urtarilaren 15era arte egongo da zabalik.

‘Baginaren bakarrizketak’ antzezlana izango da gaur Herriko Antzokian

20:30ean hasiko da saioa eta doan izango da

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna izango da azaroaren 25ean, eta horren harira, hainbat ekintza antolatu ditu Udaleko Berdintasun Sailak. Horien artean, Kultura Sailarekin batera, Gizartekutzaren bidez, *Baginaren Bakarrizketak* antzezlana Antolatu dute gaur iluntzerako, Herriko Antzokian. Txalo Produktzioak taldeak ekoiztutako lan hori elkarrizketa batzuen emaitza da. Horretarako adin, arraza, eta kultura ezberdinetako berrehun emakume baino gehiago elkarrizketatu zituzten, beraien bizipenak jasotzeko. Emakumeak sexualitatearekiko sentitzen dituzten erru eta lotsa sentipenetatik libre uztea da obraren helburua. Antzezlana 20:30ean hasiko da, eta doan izango da.



34 lagunek hartu dute parte 2012ko egutegia osatzeko argazki lehiaketan



2012ko egutegia osatzeko argazki lehiaketan 34 lagunek hartu dute parte, eta guztira, 90 erretratu aurkeztu dituzte. Erretratu bakoitzaren jabeak 65 euroko saria jasoko du.

Urtarrila: J. Ramon Cabrera
Otsaila: Andoni Etxeberria
Marxoa: Eider Iriondo
Apirila: Izaskun Estibaritz
Maiatza: Soraya Cid
Ekaina: Mikel Zengotita

Uztaila: Aitor Rementeria
Abuztua: Izaskun Estibaritz
Iraila: Eulogio Mancebo
Urria: Maria Pilar Villar
Azaroa: Eulogio Mancebo
Abendua: Mireia Iriondo.

Tramiteak euskaraz egin daitezke bake epaitegian

Elgoibarko Bake Epaitegian egin beharreko tramite oro euskaraz egiteko aukera izango dute aurrerantzean elgoibartarrek. Aukera horien artean daude jaiotza erregistroa, ezkontza erregistroa eta heriotza erregistroa. Tramite horiek euskaraz egin ahal izateko, Justizia Administrazioak Inforeg izeneko aplikazio informatikoa instalatu du Elgoibarko Bake Epaitegian. Programa horrek herrialdeko bi hizkuntza koofizialean erregistroak egiteko aukera eskaintzen du. Izan ere, orain arte liburuetan jasotzen zituzten erregistro guztiak, eta liburu ofizialek ez zuten erregistroa euskaraz egiteko aukerarik eskaintzen, legeak hala aurreikusi arren. Bake epaitegiko langileek aplikazio informatiko hori erabiltzeko beharrezkoa den formazioa ere jaso dutela jakinarazi du Elgoibarko Udalak.

‘Bertsolari’ filma eskainiko du Ongarrik, eguenean

Azaroko zine zikloaren barruan, *Bertsolari* filma ikusteko aukera izango da datorren eguenean, hilak 17, Ongarri zine-klubaren eskutik. Bertsolaritza mundua azaltzen duen dokumentala da *Bertsolari*, baina bertsolaritza erakustez gain, Asier Altuna zuzendariak bertsolaritzak dituen elementuekin jokatu du, lanak zinematografikoki interesa izan dezan. Zuzendariak esandakoaren arabera, bertsolaritzaz ezer ere ez dakienak ere ulertzeko moduko pelikula da. Filma Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean aurkeztu zuten, baina lehiaketatik kanpo.

Bestalde, azaroaren 24an, Isaki Lacuestaren *Los pasos dobles* filma eskainiko du zine-klubak. Film horrek urrezko maskorra jaso du aurten Donostiako Zinemaldian.

Elgoibarko bederatzi bikotek hartu dute parte Azpeitiko kros mistoan

156 bikotek amaitu zuten sei kilometroko lasterketa

Elgoibarko bederatzi bikotek hartu zuten parte Azpeitiko kros mistoan, Euskal Selektzioari alde. Azpeitiko erdigunean izan zen lasterketa eta sei kilometroko luzera izan zuen. Guztira 156 bikotek amaitu zuten proba, eta helmugan lehenengoak Maider Gaztañaga eta Mitxel Cuadrado ordiziarrek (25:08) izan ziren, iazko irabazle berberak, hain zuzen ere.

Elgoibartarren sailkapena

5. Ion Agirrebeña-Ainhoa Lendinez (25:33)
6. Ignacio Perez-Pilar Arriola (27:48)
18. Iosu Juaristi-Maite Maiora (27:49)
28. Iñigo Aranbarri-Agurtzane Arriola (29:01)

47. Aitor Osoro-Idoia Arakistain (30:43)
54. Carlos Ayesta-Kristina Beristain (30:52)
78. Gorka Zabala-Andrea Arriola (33:03)
98. Goiatz Leibar-Maider Blasco (34:10)
147. Leire Agirreazaldegui-Alberto Agirreazaldegui (39:13)

Mendi irteera eta ardandegian bazkaria

Interes biologikoa duen mendi irteera eta ardandegian bazkaria antolatu ditu Morkaikok, abenduaren 17rako. Urmaeletako biotopo babestua bisitatuko dute, eta ondoren Biasteriko ardandegi batean egingo dute bazkaria. Plazak mugatuak dira, eta antolatzaileek izena lehen bailehen emateko gomendioa egin dute. Elkarteko bazkideek 40 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 45 euro.

Idotorben hasi zuten joan zen asteburuan Euskadiko Hiru Txirlo txapelketa

Azaroaren 5ean hasi zen Euskadiko Hiru Txirlo denboraldia Idotorbeko bolatokia, eta 80 bolarik hartu zuten parte, horien artean, San Migeleko bolariak. Estreinako jardunaldi horretan elgoibartarrek ez zuten suerte handirik eduki, eta irabazlea Iruzubietako Antolin Arizmendiarieta izan zen, bost txirlorekin. Hurrengo jaurtialdia bihar izango da, Iruzubietan (Bolibar), arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

Alkorta taldeari babesa ematera joateko eskatu du Sanlok

Alkortak partida garrantzitsua jokatu du asteburuan, eta Sanloko ardurdunek herritarren babesa eskatu dute, izan ere, kategoriako talderik gogorrenetarikoa izango baitu aurrez aurre: Quiron Askartza. Gainera, Alkortak baja asko ditu, lesioak eta jokalarien konpromisoak direla-eta, eta zaleen babesa beharrezkoa dela azaldu du Klubak. Denboraldia oso ondo hasi du Alkortak: sei partida irabazi ditu jarraian, eta sailkapeneko goiko postuetan dago. Hor goian jarraitzeko, domeka goizean kiroldegira joateko deia egin die Sanlok zaleei. Partida 10:30ean hasiko da.



Alebinak, Gazteizen

Eskubaloi Eskolako alebin neska-mutilak Gasteizen jokatu zuten asteburuan. 72 neska-mutil joan ziren guztira,

eta lagunarteko partidak jokatu zituzten Gasteizko taldeen kontra. Denboraldiko lehenengo irteera izan da eskolako gaztetxoentzat.

Umeentzako eskalada ikastaroa antolatu dute

Morkaiko mendizale elkarteak umeentzako eskalada ikastaroa jarriko du martxan, azaroaren 21etik aurrera. Haurrak eskaladaren mundura gerturatzea, eta bereziki, eskaladan egin behar ez diren gauzak ezagutzeko izango da ikastaroaren helburua. 45 minutuko zortzi saio izango ditu ikastaroak, eta eskalatzeko beharrezko materiala elkarteak berak jarriko du. Morkaikoko bazkideek 20 euro ordaindu beharko dituzte, eta, gainerakoek 23 euro. Ordainketa ondorengo kontu korranteetan egin daiteke: 2101 0036 69 0000380550 (Kutxa), edo 3035 0007 27 0071104751 (Euskadiko Kutxa). Informazio gehiago www.morkaiko.net helbidean. Bestalde, Morkaikoren argazki eta bideo lehiaketa martxan dago, eta interesatuek azaroaren 25era arteko epea dute mendiko erretratu eta bideoak aurkezteko.

Emakumeentzako spinning saio berezia izango da azaroaren 26an

Spinning eskaintza berria egin du Patronatuak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak emakumeentzako spinning saio berezia antolatu du azaroaren 26rako. Saioa 10.30etik 11.45era egingo da, Argiñe Gabilondo monitorearen aginduetara. Partaidetza doan da, eta interesatuek Mintxetako harreraren eman behar dute izena, hilaren 22a baino lehen.

Eskaintza berria

Urriaren zabaldu zuten Mintxetako spinning gela berria, eta kirol patronatuak spinning eskaintza zabaldu du. Alde batetik erabiltzaileek astean saio bat, bi edo hiru dituen ikastaroetan eman dezakete izena. Bestalde, norbaitek dagokion saiora ezin badu joan, saio hori beste ordutegi batetan berreskuratu ahal izango du, beti ere arrazoituz. Era berean, nahi duenak, saio solteetara joateko aukera ere izango du. Bazkideek 5,75 euro ordaindu behar dituzte saio bakoitzeko,



eta gainerakoek, zortzi euro. Informazio gehiagorako 943 747 356 telefonora deitu daiteke.

EMAITZAK

FUTBOLA

Balmaseda 4 – Haundi 0 (3. maila)
 Beti Gazte 2 – Elgoibar 2 (Erreg.)
 Elgoibar 3 – Billabona 0 (Ohorezko jub.)
 Elgoibar 0 – Arrasate 0 (Kad. A)
 Arrasate B 4 – Elgoibar 3 (Kad. B)
 Elgoibar 7 – Aloña Mendi 1 (Ohorezko inf.)
 Iñitxa 2 – Elgoibar 3 (Inf. txiki)
 Aloña Mendi 2 – Elgoibar 0 (Aleb.)
 Elgoibar 2 – Lagun Onak 1 (Erreg. neska)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
 Lagunak 10 – Zumaia 22 (1. mailako nag.)
 Lagunak 15 – Beloki 22 (2. mailako nag.)
 Lagunak 22 – Zumaia 7 (2. mailako jub.)
 Lagunak 22 – Azkoitia 16 (1. mailako jub.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 5 – Burgos 5 (2B maila)
 King-Kong Elg. 5 – Tolosala 6 (jub.)

ESKUBALOIJA

Gure Auzune 19 – Alkorta Elg. 15 (Sen. mut.)
 Tecnifuelle Elg. 24 – Basauri 25 (Sen. neska)
 Errotabarri 30 – Lauko Elg. 24 (Jub. neska)
 Grupo Eibar Elg. 35 – Karibe Zaharra 30 (Kad. mut.)
 Errotabarri 14 – IMH Elg. 25 (Kad. neska)
 Astigarraga Elg. 23 – Urnieta 16 (Kad. neska)
 Bankoa Elg. 30 – Eibar B 13 (Inf. mut.)
 Txarriduna Elg. 34 – Aloña 12 (Inf. mut.)
 Aloña Mendi B 9 – Ikus Elg. 32 (Inf. neska)
 Aiala A 16 – Aterpe Elg. 13 (Inf. neska)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 12
 10:00 Elgoibar – Urki (Kad. B)
 12:00 Elgoibar – Amaiak Bat (Ohorezko Jub.)
 16:30 Haundi – Gernika (3. maila)
 18:45 Elgoibar – Olartzun (Erreg.)

ESKUBALOIJA (Kiroldegian)

Zapatua, 12
 11:15 Aterpe Elg. – Aloña Mendi B (Inf. neska)
 12:30 Ikus Elg. – Legazpi (Inf. neska)
 16:00 IMH Elg. – Usurbil (Kad. neska)
 17:30 Lauko Elg. – Usurbil (Jub. neska)
 19:00 Beristain Elg. – Egia (Jub. neska)
 Domeka, 13
 10:30 Alkorta Elg. – Askartza (Sen. mut.)

‘Everestera biderik motzena’ hitzaldia eskainiko du Alberto Zerain mendizaleak eguaztenean

Morkaiko elkarteak antolatutako mendi emanaldien barruan, *Everestera biderik motzena* hitzaldia eskainiko du Alberto Zerain mendizaleak datorren eguaztenean. Alberto Zerain puntako Himalaialaria da, eta bereziki, estilo alpinoa eta bide zailak gustatzen zaizkio. 2010ean Everest mendia Horbein korridoretik igotzen saiatu zen, Juan Carlos ‘Txingu’ Arrietaekin batera, baina buelta eman behar izan zuten. Hori guztia azladuko du mendizale arabarrak bere saioan. Hitzaldia 21:30ean hasiko da, Musika Eskolan.



LANA

ESKAERA

- Emakumea lanerako prest. Etxeko lanak, zaintza, garbiketak edo dena delakoa. ☎ **697 649 399**
- Gizona lanerako prest. Gidabaimen guztiak ditut. ☎ **697 649 399**
- Emakumea orduka lan egiteko prest. ☎ **636 581 194**
- Emakumea lan bila. ☎ **650 152 866**
- Emakumea lan bila. ☎ **618 050 902**
- Emakumea lan bila. ☎ **646 143 287**
- Garbiketa eta zaintzak egiteko prest nago. Orduka edo eta interna. ☎ **943 741 909**
- Garbiketa, zaintza eta beste edozein lan egiteko prest nago. Orduka. ☎ **618 052 967**
- Emakumea lanerako prest. Umeak edo pertsona edadetuak zainduz. Interna, orduka edo asteburuetan egingo nuke lan. ☎ **669 994 669**
- Emakumea lanerako prest, umeak edo pertsona nagusiak zaintzen. Etxeko lanak egingo lituzke. ☎ **633 150 376**
- Emakumea lan bila. Esperientzi handia pertsona nagusiak zaintzen. ☎ **638 047 847**

- Emakumea orduka lan egiteko prest. ☎ **690 134 485**
- LH, DBH eta batxilergoko klaseak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **696 295 098**
- Lehen hezkuntza, ingelesa eta matematikako klase partikularrik emango nituzke. ☎ **669 031 820**
- Emakumeak ordukako lanak egingo lituzke, elkarte edo portalen garbiketak eginez edo gauez pertsona nagusiak zainduz. ☎ **699 813 826**
- Emakumea lanerako prest, umeak edo pertsona nagusiak zaintzen. Etxeko lanak egingo lituzke. ☎ **690 925 929**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **647 175 093**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Bi edo hiru hilabetetarako pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **650 551 222 - 627 296 885**
- Emakumeak pisua alokatuko luke. Apartamentua edo 2 logelako etxea. ☎ **659 612 096**
- Emakumeak, hiru logelako pisua alokatuko luke. ☎ **699 813 826**
- Pisua alokatuko nuke. ☎ **680 808 125**

GARAJEAK

- Santa Ana kalean marradun garajea alokagai. 65 eu-rotan. ☎ **667 083 913**
- Bi garaje alokatzen / saltzen dira Leku Eder eta Jausoro plazan. ☎ **652 727 631**
- Marradun garajea alokagai leku ederren, 4. solairuan (60 €). ☎ **660 042 159**

BESTELAKOAK

- 2 urteko katua, kastratua eta atzazkalik gabeta oparitzen dut, ethez aldatzen garelako. Goxoa, maitakorra, eta garbia. Etxean edukitzeko aproposa. ☎ **622 269 772**
- Gore-Tex gabardina salgai. Kolore gorri bizia, Ternua markakoa. Aukera ona: 99 euro. ☎ **659 986 943**
- Canon EOS 500D + 18-55 S reflex digitala salgai. KIT osoarekin (bigarren bateria, tripodeta, parasola, poltsa, lentea garbitzeko kit-a ...) 450 euro. (Negoziazarria) ☎ **667 307 196**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Prezioak: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta)

Autoak saltzea: 12 euro. Bestelakoak: 6 euro

Iragarkiari erretratua jarriz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.



MEKANOSA

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak ezartzea
Lantutako egut, aluminio, PVC
Pisua orokorra

San Roke, 7 behea
Pol. Glaso - Glaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 670





• Zorionak, **Ane**, hila-
ren 8an 7 urte egin ze-
nituelako. Ahizpa Nere
eta lagun Aritz eta
Maialenen partez.



• Zorionak, **sorgintxo**,
hilaren 8an urte bat
egin zenuelako. Etxe-
koen, eta bereziki,
Markelen partez.




• Zorionak, **Unai**, osti-
ralean 7 urte egin ze-
nituelako. Familiakoen,
eta, bereziki, Irene eta
Claudiaren partez.



• Zorionak, **Jakes**, as-
telehenean 4 urte egin
zenituelako. Muxuak
famiakoen, eta berezi-
ki, Markel eta Elenaren
partez.



• Zorionak, **Unai**, do-
mekan 8 urte egingo
dituzulako. Muxu asko
gurasoen eta bereziki,
Aneren partez.



• Zorionak, **Manex**,
atzto 3 urte egin ze-
nituelako. Muxu asko ai-
ton-amonen eta osaba
Mikelen partez.



• Zorionak, **Elena**, as-
telehenean 4 urte egin
zenituelako. Patxo han-
di bat familiakoen eta,
bereziki, Mariaren par-
tez.



• Zorionak, **sorgintxo**,
azaroaren 16an 3 urte
egingo dituzulako. Mila
patxo potolo etxeko-
en, eta bereziki, Izaro-
ren partez.



• Zorionak, **Oihane!**
Oso ondo pasatu ge-
nuen zure hirugarren
urtebetetze egunean.
Muxu handi bat etxeko
guztien partez.



• Zorionak, **Naiara**,
gaur 5 urte egin ditu-
zulako. Muxu handi
bat etxekoen partez.



• Zorionak, etxeko
printzesa, astelehene-
an 4 urte egin zenitue-
lako. Guraso, aiton-
amona eta lagun
partez. Muxu bat.



• Zorionak, **Ekhi!** Bihar
urte bat egingo duzu!
patxito asko guraso,
aittita-amama, osa-
ben-izeba eta lehen-
gusuen partez!



• Zorionak, **Nahia eta Marjo**,
azaroaren 8an
zuen urtebetetze eguna izan zelako.
Familiako-
en eta lagun
partez, muxu handi bat.



Azaroaren 16an
EUSKAL DANTZA TAILERRA
Ludotekan, 17:30etik aurrera.
Animatu eta etorri gure
sustraiak ezagutzera!



Larunbatean **KILL BILL** pelikula
ikusiko dugu eta igandean
Ping-Pong txapelketa hasten da.
Etorri lagunak animatzera!

Ludoteka eta Atxutxiamaiakarekin Olentzeroren Etxera



Abenduak 4 (domeka)
Familia-Irteera
(2-99 urte bitartekoentzat)
Prezioa: 5€ pertsonako
Izen-ematea: Elgoibarko Izarran
edo Ludotekan
Azaroaren 25era arte

Antolatzaileak:



Babeslea:



Laguntzaileak:



Atxutxiamaiak:

943 74 16 26

atxutxiamaiak@elgoibarkoizarra.org

Ludoteka:

943 74 88 83

ludoteka@elgoibar.org

11 barixakua

Erakusketa

17:30 Argazki erakusketa
Depresioa: XXI. mendeko pandemia. Gaur itxiko dute erakusketa. Kultur Etxeko sotoan.

Erakusketa

18:30 Argazki erakusketa
Ongarri bilduma. Ongarri argazkilari taldeak antolatuta, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Antzerkia

20:30 'Baginaren bakarriketak'
Txalo Produzioak taldeak taularatuko du, Herriko Antzokian.

12 zapatua

Argazkia

13:00 Amaiur koalizioaren erretratua
Amaiur koalizioari babesa emateko herri argazkia aterako dute Plaza Handian.

Autobusa

16:00 Amaiur koalizioaren ekitaldira joateko
Amaiur koalizioak Donostiako Belodromoan egingo duen ekitaldira joateko autobusa, King-Kong autobus geltokian. Txartelak salgai daude Jai Alai eta Lanbroa tabernetan.

13 domeka

Jardunaldia

10:00 Ibaia garbitzea
Debegesak antolatuta, Deba ibaia garbituko dute.

Dailazoak

16:30 Txirri, Mirri eta Txiribiton junior
Barre egin saioa aurkeztuko dute Herriko Antzokian.

16 eguztena

Ikusentzunezkoa

21:30 'Everestera biderik motzena'
Morkaikok antolatuta, Alberto Zerain mendizaleak eskainiko du hitzaldia. Musika Eskolako auditorioan.

OKINDEGIA

13 domeka **IBARRENEA**

FARMAZIAK (24 orduz)

11 Etxeberria (*Errosario*)
12 Ibañez Etxeberria (*Santa Ana*)
13 Ibañez
14 Garitaonandia-Bidasolo
15 Etxeberria (*Santa Ana*)
16 Fernandez
17 Yudego
18 Zabaleta

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«El capitan Trueno y el santo grial»

12, zapatua: 19:00/22:15
13, domeka: 19:00
14, astelehena: 21:30

«Bertsolari»

Ongarri zine-kluba
17, eguztena: 21:30

«El capitan Trueno y el santo grial»

Zuz. Antonio Hernandez. España, 2011. Iraupena: 115 minutu. Generoa: Abentura. Aktoreak: Sergio Peris-Mencheta, Natasha Yarovenko, Gary Piquer, Manuel Martínez, Asier Etxeandía. Palestinako III. Gurutzada gudan kokatutako istorioa da. Trueno kapitaina Juan de Rivera espainiarraren gotorlekuko ziegan dago, eta bere garaian lapurtutako Santo Grial dagokion lekura bueltatzeko misioa emango diote. Trueno kapitainak Crispin eta Goliat izango ditu bidelagun, eta Sigfrid printzesa ere aldamenean izango du.



«Bertsolari» Zuz. Asier Altuna. Euskal Herria, 2011. Iraupena: 90 minutu. Generoa: Dokumentala. Bertsolaritza eta bertsolarien jarduna jasotzen du dokumentalak.



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia
☎ 943 74 30 94



Gremioen GIDA

ZERGATIK EZ DITUGU IDAZTEN GURE IZEN-ABIZENAK EUSKARAZ?

